

HERNANI kronika

2003 urtea
Abenduak 28
Igandea
Alea: 975
www.kronika.net

Alde Zaharreko auzo elkartea Gudarien plazako harria kentzea proposatuko dio Udalari

■ Plazan aktibitate gehiago izatea nahi du eta benetako plaza zentza hartzeara ■ Harri horren balioaz jabetuta, Kaxkok proposatu du harri hori Agustinatako konbentua inguratuko duen paretean jartzea

KAXKO auzo elkartea Gudarien plazako lurra aldatzeko eskatuko dio Udalari. Auzo elkartearen esanetan, harri hori, balio haundikoa izanik ere, ez da lurrerako egokia, eta traba haundi bat plaza aktibitate gune eta herriko bizitzaren benetako plaza izateko: "paseatzeko, egoteko, umeak jolasean ibiltzeko... izan dadila jendea bildu eta gustora sentitzeko moduko" dio auzo elkartek. Kaxkok espazio kultural eta sozial gisa bultzatu nahi ditu bai Gudarien plaza eta baita Tiloseta ere, eta proiektu horren barruan eskatuko dio Udalari lurra aldatzeko.

Auzo elkartearen proposamena da balio haundiko harri hori beste nonbait aprobatxatzea. Eta lurrerako egoikia ikusten ez dutenez, proposatu du Agustinatako konbentua bueltan izango duen paretean jartzea, Udalak promotorrekin negoziatuta.

Kasko elkartek aitortu du ez dela aurreneko aldia plazako lurra aldatzeko eskaaten dutena, baina, korporazioek atzera bota izan dutela beren eskaera.

Komun publikoak

Plazari izaera kultural eta sozial haundiagoa emateko idearen barruan, Kaxko auzo elkartek beste bi proposamen konkretu ere egin ditu:



Kaxkok plaza aktibitate zentroa izatea nahi du eta uste du lurra aldu behar dela horretarako.

bat da San Joantzen Milagrosa aurrean izaten diren zenak Gudarien plazan jartzeara; bestetik, plaza bueltako lokal hutsen batean komun publikoak, Tilosetako edo kiroldegiko formula erabilita.

Obra likidatzeko zorian

Alde Zaharra berritzeko obrak aspaldi daude bukatuta, baina, hemendik gutxira likidatuko dira. Kaxko elkartek bilera bat egin zuen jendeak aldatzeko ikusten dituen azken ikuituen berri emateko. Kaxkok ikusten zuen puntuetako bat da kaleetan espaloia mar-

katzea nolabait, oinez dabilearen segurtasunerako. Arrazoi beragatik kotxeak mantsago ibili beharra ere ikusiten dute eta horretarako udal-tzaingoari kontrol gehiago eskatu diote. Bileran izaterik ez zuten auzotarrei Kaxkok esan die inongo aldaketa proposamenik izan ezkerro Udaletxera jotseko lehenbailean.

Kaxkok plantearzen duen beste puntuetako bat da, telefono eta argi instalazioak lurpean joateko azpiegitura prest dagoenez, Udalak Telefonica eta Iberdrolari presioa egin diezaiola kableatura lehen-

bailehen lurpean sartzeko. Puntu horiek denak hitz egin eta eztabaidatzeko Kaxkok bilera eskatu du Udalarekin.

Kaxko auzo elkartek Kronikari azaldu dionen Alde Zaharra berritzeko obrei ja-raipena egiteko sortu zen auzo elkartea eta aurrera begira uste du beste fase bat datorrela, helburu berriak eta jende berria izango dituena.

Alde Zaharreko jaiak ere Kaxko jarri ditu berriz martxan. Aurten bi kaleak batera egin dute eta datorren urtean ere halaxe egingo dute, Karmen egunean. □

Auzo gehienetan 2-3 orduz ura kenduko du gaur Añarbek

AÑARBEK adierazi du urtero bezala zenbait instalazio ga-bitzen ari direla eta gaur ura moztuko Hernaniko auzo gehienetan. Ura ez dute denean batera kenduko, baina, 09:30etik 18:30ak bitartean izango mozketak eta 2-3 ordu bitartekoak izango dira. Añarbek herritarri barkamena eskatu die. □

PELOTA

Erroizenea eta Oteiza pelotarieki DV saria irabazi dute

GARIKOITZ Erroizenea ereñotzuarra eta Oteiza txapeldun gelditu dira Diario Vasco pelota torneo sonatuan. Finala atzo jokatu zen eta 22-14 irabazi zien Dominguez-Altunari. □



Gudarien enparantza 14 - Tfnoa: 943 33 09 28 - 20.120 HERNANI



GasHernani
Zure etxerako
energia naturala
GAS NATURALA
*Eguberri jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!*

SANTA BARBARA
PEUGEOT



Tailerrak: Larramendi15 - Exp: Arantzazu 15 ☎ 943 551139 / 943 551979
Auto eta furgoneta zaharrak, 2.eskukoez aldatzent ditugu

406 Diesel HDI 110	- Aire egokitua	12.822 €
Ford Escort Turbo Diesel		4.507 €
Berlingo Diesel	- Aire egokitua	8.816 €
Jeep Cherokee TDI	- Aire egokitua	9.818 €
Fiat 1 3 ate Diesela		2.885 €
Land Rover - Pik NP	- Aire egokitua	2.855 €
Saab Coupe 2.000	- berri berri	5.812 €
Rover 45 Turbo Diesela	- Aire egokitua	9.616 €
...eta hainbat kotxe merke		

Argitaratzailea: Dobera Euskara Elkartea. Errredakzioa, argazkiak eta publizitatea: Hernani Komunikazioak. J.M.Irazu U. Agirre, E. Agirre, N. Legarreta eta A. Zerain. Egoitza: Larramendi 11. ☎ 943-330899. Faxa: 943-336306. Ezposta: kronika@topagunea.com. Lege gordailua: SS-679/2000. ISSN 1576-8422.

FUTBOLA - GORENGOA



Hernanik urtea hamar aurrenekotan bukatzeko aukera du gaur Oñatin irabazten badu.

Hernanik Oñatin jokatuko du urteko azken partidua

Loranen mutilek Aloña Mendiren kontra jokatuko dute, 15:30etan.

HERNANIK Aloña Mendiren kontra jokatuko du gaur arratsaldean Oñatin. Ligako aurreneko bueltako azken hirugarren partidua da eta irabazten badu sailkapenean oso leku politean gelditu liteke. Jon Loranek entranatzen duen taldea 13garren postuan dijioa, 20 punturerek. Gaur irabazita 10 aurrenekotan sartzeko aukera izango luke, Aloña Mendi bera atzean utzita. Oñatiarrak 9ga-

rren dijoaz orain, 22 punturakin. Hernanik nahiko pattal hasi zuen denboraldia, batez ere Zubipen, punturik atera ezinda. Baina, azken boladan oso ondo ari da jokatzen eta bost partidu egin ditu galdu gabe, aurreko asteburuan etxe-an galdu zuen arte.

Orain arte jokatutako 16 partiduetatik 6 irabazi ditu, 8 galdu eta bi berdindu. 19 gol sartu ditu eta 25 jaso. □

Ordizia eta Amaikak bat
Aurreneko buelta osatzeko bi partidu gelditzen dira. Hernanik Ordizia hartuko du aurrena etxean, eta oso partidu garantzitsua izango da Ordizia 17garen baitijoa, 18 punturekin. Azken partidua faroliloaren kontra jokatuko du, Amaikak bat taldearen kontra.

Bigarren buelta berriz, Arrasaten hasiko du haunditako batekin. □

SASKIBALOIA

Eguberrietako torneoa Hernanin, kiroldegiaren

ASKATUAK, Atko UPV, BKL eta Iraurgik saskibaloitorneoa jokatuko dute Hernaniko kiroldegiaren. Torneoak bi egunekoak izango da. Bihar

astelehena, kanporaketa partiduak jokatuko dira eta asteartean finala. Kanporaketan, Askatuak-ek Atko UPVren kontra jokatuko du, 19:00etan,

eta Iraurgik BKLren kontra, 21:00etan. Bi irabazoleak finala jokatuko dute asteartean, hilaren 30an, iluntzeko 20:00etik aurrera. □

ARALAR TABERNA

Zapa 8 - ☎ 943 33 15 06 -

AMEGAR

Etxe tresnak Altzariak
Elektrogailuak TB-Bideoak-HI-FI-Opariak
Sukalde altzariak

Tel.: 943 55 11 25
Faxa: 943 55 16 30

ONDOJAN - ERAMATEKO JANA Antziolan
Oilasko erreak enkarguz, etxeko sukaldaritzak, prestatutako janaria, txarkuteria, ...
IGANDE GOZETAN ERE ZABALIK

ondojan

Antziola, 9. T. 943 33 12 52. Hernani

TXIMELETA OPARIAK

Txirrita 10
943 55 23 95

URMAR BRIKOLAJEA

Oztaran auzoa 13
Tel.: 943 552 616
20.130 URNIETA

JOM XAL EIR

Kale Nagusia, 7
55 00 32 HERNANI

HITZ BITAN

PRESOAK

Elkartasun denda Kardaberaz kalean. Urtero bezala, aurten ere presoen aldeko elkartasun denda jarri dute Hernanin. Denda goiz eta arratsalde dago zabalik 11:00-13:00 eta 17:00-20:00ak bitartean.

IPUI KONTALARIA

Ipuia bihar liburutegian. Lur Korta ipui kontalaria ariko da bihar Biterin. 11:00etan 3-4 urteko umeentzat eta 11:30etan, 5-7 urte artekoentzat.

BERTSOLATA

Kale antzerkia gaur, 19:30etatik aurrera. Bertsolataren barruan, atzo bertsolari jaialdi nagusia izan zen Sandiusterin eta gaur kale antzerkia izango da Kaxkoko kaleetan barrena. Ekitaldia arratsaldeko 19:30etatik aurrera izango da.

BIDEZKO MERKATARITZA

Denda Tilosetan. Elizako talde batek Bidezko Merkataritza denda jarri du Tilosetan eta bihar arte egongo da zabalik. Postu horretan batez ere janaria izango da, baina, baita arropa eta artisautza jeneroa ere. Ordutegia: 10:30-14:00, 17:00-20:00. □

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYK: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

FARMAZIAK

- Egunez: Aizpuru Latxunbe Berri 11 ☎ 943 336077
- Gauzez: Tanco Urnieta. San Juan 36 ☎ 943 550942

ESKERTZA

Maria Nieves Etxenike Aranburu

Abenduaren 21ean hil zen 77 urte zituela

Maria Nievesen senitartekoek eskerrak ematen dizkizuegu modu batera edo bestera gurekin izan zareten guztilo, eta zuen lagunza eta babesa eman diguzuen denoi. Eskerrik asko.

Maria Nievesen familia

Hernanin 2003ko abenduaren 28an

Iñigo Royo Manterola

MASAJEA

NATUROPATHIA

*Eguberri jaietan,
ondo pasa eta gutxi gastau!
Sta. Barbara 42 - 2.esk. - 943 33 28 94*



kronika

2004ko egutegia salgai

2 euro

Dobera eta Hernaniko Kronikan. Zinko Enea, Konde eta Plaza Berri kioskoetan.

Sebas eta Iruretagoienan. Dorronsoro, Bikain eta Antziola okindegietan.



MENABI-k INSTALAZIO BERRIEN ATEAK ZABALDU DITU.

Menabi, Škoda Kontzesionario Ofizialak, erabat berri ditzu bere instalazioak eta inauguratzen ditu. 1500 m² baino gehiago Škoda-rentzat bakar-bakarrik: auto berri eta erabilien erakustokia, tailerra, errekanbioak eta bezeroentzako aparkalekuak. Ospatzeko, prezio bereziak gama osoan abenduaren 31 arte.



MENABI Txingurri pasealekuak, 26 · Tel. 943 40 42 43 · Donostia